**Azalpen txostena, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.**

Departamentuak 8 aurrekontu programa ditu, autonomia dutenak eta oro har bat egiten dute departamentu honen jarduera ildo nagusiekin; txostenean bereizirik aztertzen dira, indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta desberdintasun nagusiak agertzen dituzten programak.

Idazkaritza Teknikoari baitagokio **010 programa** (Departamentuko sistema informatikoa koordinatzea), igoerarik handiena dago administrazio elektronikoarekin lotutako eta IZFEk garatu beharreko proiektuen inbertsioetan. Igoera horren Arrazoia da Foru Aldundiaren jarduera egokitu beharra dagoela komunikazio bide berrietara edo gardentasun nahiz partaidetza irizpideetara, izan arauek hala agintzen dutelako edo izan foru plangintza estrategikoarekin (Kudeaketako Plan Estrategikoa 2015-2019 (KPE)) lerrokatzeko.

Bestalde, 2017ko ekitaldian lehen aldiz, kudeaketa zentralizatuko gastu gisa sartu dira "IZFE informatika zerbitzuak. Mantenu Orokorrari" buruzko kredituak.

**Herritarren Partaidetzako 020 programan** saiatu da jasotzen beharrezkoak diren kredituak GFAk erakundearen kultura eta antolakuntza aldaketarekin duen konpromiso korporatibo eta zeharkakoa gauzatzeko.

Herritarren partaidetzan modu esanguratsuan eragiteko eta KPEko *13. helburu* horren ildoak garatzeko, beharrezkoa da beste eragile batzuen sinergiak eta konplizitateak izatea, dela Lurraldeko udalena (udalekin lankidetzan aritzeko ekimenak), dela Lurraldeko herritarrena (herritarren eskola), indarrean dagoen araudiak aurreikusten dituen tresnak garatzea (Gizarte Kontseilua,

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El Departamento cuenta con 8 programas presupuestarios que teniendo autonomía propia, se adecuan a las grandes líneas de actuación de este departamento. En este informe se abordan de manera separada aquellos programas que presentan diferencias significativas respecto del presupuesto vigente.

Correspondiendo a la secretaría técnica, **programa 010**, la coordinación del sistema informático del Departamento, es en la inversión en proyectos a desarrollar por IZFE relacionados con la administración electrónica en donde aparece un incremento reseñable. Este incremento se explica en la necesidad de adecuar la actuación de la Diputación Foral a los nuevos canales de comunicación o a exigencias sociales en términos de transparencia o participación, bien por propia imposición normativa o bien para alinearlo debidamente con la planificación estratégica foral (Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 (PEG)).

Por lo demás, por primera vez para el ejercicio 2017, se incluyen como gasto de gestión centralizada los créditos referidos a “Servicios Informáticos IZFE. Mantenimiento General”.

En el **programa 020 de Participación Ciudadana** se han intentado recoger los créditos precisos para hacer realidad el compromiso corporativo y transversal de la DGF con el cambio cultural y organizativo de la propia institución.

Para incidir de manera significativa en el ámbito de la participación ciudadana y desarrollar las líneas de acción del referido *objetivo 13* del PEG es necesario contar con las sinergias y complicidades de otros agentes, como son los propios municipios (iniciativa para la colaboración con municipios) o las ciudadanía (escuela de ciudadanía) del Territorio, el desarrollo de los instrumentos

Partaidetzarako Herritarren Entitateen Foru Erregistro Foru Batzordea), bermatzea Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza foroetan, sareetan, eta abarretan egotea, edo Foru Zuzendaritza horrek garatzen dituen ekintzak ezagutzera ematea. Horregatik guztiagatik, nahikoa kreditu jasotzen dira lankidetza gobernantzaren helburua gauzatu ahal izateko.

previstos en la normativa vigente (Consejo social, Comisión Foral Registro Foral de Entidades Ciudadanas para la Participación), garantizar la presencia de la Dirección de Participación Ciudadana en foros, redes, etc., o dar a conocer las actividades que desarrolla (Newsletter) la referida Dirección Foral. Para todo ello, se dota el programa de los créditos precisos que permiten materializar el objetivo de la gobernanza colaborativa.

"Aurrekontu irekiak" (partaidetzazko Aurrekontuak) ekimenak bultzada berezi bat jasotzen du programa honen barruan, eta hori berariaz aipatzen da 2017rako aurrekontu proiektuak egiteko onartu diren ardatz nagusietan.

A la iniciativa de “presupuestos abiertos” (presupuestos participativos), se le otorga un impulso especial dentro de este programa, a la que se alude expresamente en las propias directrices aprobadas para la elaboración del proyecto de presupuesto para el 2017.

**Suaren aurkako Babesari eta Salbamenduari buruzko 030 programari** dagokionez, bi aipamen egin behar dira. Lehenik, 2016an aurrekontuetan sartutakoa gutxiegi zenez, gastu kredituak handitu egiten dira Donostiako Udalarekin sinatuta dagoen suhiltzaile zerbitzuari buruzko hitzarmenari dagokionez, hartara hartutako konpromisoei eta bi erakundeen artean aurrera eramaten ari diren lan partekatuei egoki erantzun ahal izateko.

En relación con el **programa 030, de Protección contra el fuego y Salvamento,** cabe hacer dos apuntes. En primer lugar, a la vista de la insuficiencia de lo presupuestado en el 2016, se incrementan los créditos de gasto en relación al Convenio con el Ayuntamiento de San Sebastián en materia de servicio de bomberos, para atender debidamente los compromisos adquiridos y el trabajo compartido que se está llevando a cabo por parte de de ambas instituciones.

Bigarrenik, *KPEren 12. helburuaren* barruan Suhiltzaile Zerbitzuari dagokion ildoari dagokionez, inbertsio erabaki ausartak hartu behar dira VI. kapituluan, hartara zeregin bereziki kritikoak dituen Zerbitzu honek behingoz gainditu ditzan dituen gabezia larriak. Zentzu horretan, eta larrialdi zentroaren egoera aztertu ondoren, lehentasunezkotzat jotzen da orain Gipuzkoako larrialdi zentro zentralizatu baten proiektua bideratzeari ekitea.

En segundo lugar, dentro de la línea de acción en la que se alude al Servicio de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento dentro del *objetivo 12 del PEG*, se demandan en estos momentos decisiones de inversión audaces dentro del capítulo VI para superar de una vez las carencias que arrastra ese Servicio, al que corresponden funciones especialmente críticas. En este sentido, diagnosticada la situación del centro de emergencias, se considera prioritario en este momento abordar un proyecto que conduzca al establecimiento de un centro de emergencias para Gipuzkoa centralizado.

**Funtzio Publikoko 200 programan** –Foru Aldundi osoaren egitura gastuaren programaren adibidea–, KPEren 14. helburua lortzeko fokua jartzen da: "*GFAko zerbitzari publikoa ahalduntzea*".

En el **programa de Función Pública, 200 -** ejemplo de programa de gasto de estructura de toda la Diputación Foral-, es donde se pone el acento de cara a la consecución del objetivo 14 *“Empoderar al servidor público de DFG” del PGE*.

Langile taldea berritzeko dauden legezko mugak gorabehera, urrats zehatzak eman behar dira orain etorkizuneko egoerari aurre hartzeko; ondorioz, onartuta dauden enplegu eskaintza

No obstante las limitaciones legales de cara a la reposición de la plantilla, la realidad impone dar pasos decididos para preparar escenarios próximos y por tanto, acometer ya aquellos

publikoen deialdiekin hasi behar da, falta diren lan poltsak osatu behar dira, hartara bermatu ahal izateko aldi baterako estaldura gorena, eta mentoring prozesuak bultzatu, ezagutzaren eskualdaketa ongi egiteko, enplegatu publikoaren kudeaketan modernizatu eta aitzindari bilakatuz.

Horregatik, aipatu helburuak betetzeko aukera emango dituzten kredituak jasotzen dira.

Bestetik, KPEk helburu estrategiko hori garatzeko dituen ekintza ildoekin bat, eta antolakuntzaren eta gaitasunen eraldaketa progresiboari begira, une hauetan aurrekontu programa honetan jasotzen dira alor ezberdinetan ekintzak burutzeko nahiko funtsak, batzuek berritzaileak, tele-lana edo eskumen kudeaketa kasu, eta beste batzuk indartzeko asmoarekin, prestakuntza adibidez, aipatu foru kudeaketa planaren helburuak lortzea ahalbideratuz.

**300 programa**ko ezberdintasunak **(Foru Zerbitzu Publikoetan Modernizazio eta Administrazio programa)**, II. kapituluan batez besteko igoera handia delarik, GFAren KPEren *12. helburua* betetzearen ondorio dira osoki. Zehazki, herritarrekin zuzeneko komunikaziorako kate berriei buruzko azterketa bat egitea aurreikusi da, eta gobernantza onaren ingurutako eremuetan lan egiten duten nazioarteko sareekin loturak indartzeko.

Aipamen berezia merezi du, orobat, *erakunde zintzotasuna eta etika publikoa sustatzeko politikaren garapenari buruzko ekintza ildo estrategikoak*. 2016an erakunde zintzotasunaren sistema onartu zen, eta hurrengo ekitaldian ezagutzera emateko ekimenak burutuko dira, Lurraldeko beste eragile batzuekin printzipioak partekatzeko eta, oro har, zintzotasun sistema hori erakunde eredugarri baten nortasun ikur bihurtzeko.

**400. programak** Kanpo Harremanei buruzko jardueren gastu aurreikuspenak biltzen ditu, zeinak Departamentu honen eskumen baitira.

procesos como las convocatorias de ofertas públicas de empleo ya aprobadas, las bolsas de trabajo en áreas actualmente carentes de ellas, con el objeto de garantizar la óptima cobertura transitoria o procesos de mentoring para asegurar debidamente la transferencia del conocimiento, modernizando y siendo vanguardia en la gestión del empleado público.

Por todo ello, se recogen los créditos que permitan avanzar en esos objetivos.

Por lo demás, de acuerdo con las líneas de acción en que desarrolla el propio PEG el referido objetivo estratégico, y con la vista puesta en la transformación progresiva de la organización y de sus capacidades, se dota este programa presupuestario de fondos suficientes para afrontar acciones en materias, algunas novedosas, como las del tele-trabajo y la gestión por competencias, además de reforzar otras, como el de la formación que permitan acometer con solvencia la consecución de las metas del referido plan de gestión.

Las diferencias en el **programa 300 de Modernización y Mejora Administrativa en los Servicios Públicos Forales**, con un incremento relativo considerable en el capítulo II, responden en su integridad al cumplimiento del *objetivo 12* del PEG. En concreto, se ha previsto acometer un estudio relacionado con nuevos canales de comunicación directa con la ciudadanía, y reforzar los vínculos con redes internacionales que trabajan en ámbitos próximos a la buena gobernanza.

Mención especial merece igualmente la línea de acción estratégica referida al desarrollo de la *política de integridad institucional y de impulso de la ética pública*. Aprobado ya el 2016 el sistema de integridad institucional, este próximo ejercicio ha de servir para promocionar y difundir su conocimiento, compartir sus principios con otros agentes del Territorio y en definitiva, convertir este sistema de integridad en seña de identidad de una institución ejemplar.

El **programa 400** recoge aquellas previsiones de gastos que se derivan de las actuaciones relativas a las Relaciones Externas que son competencia de este Departamento.

Aurrekontuko programa horren zenbateko osoa aldatu ez bada ere, datorren ekitaldian "Gipuzkoa Europan indartuz" proiektua finantzatzera bideratuko dira ahalegin asko, bi xede hauek lortzeko: gure lurraldea Europan zehar agerian jartzeko laguntza eskuratzea, eta Europako eremuko jarduerak koordinatzeko eta haien berri emateko bideak ezartzea.

Si bien no hay variación en el importe conjunto de este programa presupuestario, sin embargo de cara al próximo ejercicio se dirigen los esfuerzos de financiación a dotar el Proyecto "Gipuzkoa europan indartuz", con el objetivo de contar con asistencia de cara a visualizar el Territorio en el mapa europeo y establecer canales para coordinar e informar sobre acciones en el ámbito europeo.

**100 eta 310 programak**, Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza, Aholkularitza eta Defentsa Juridikoari, eta Zerbitzu Orokorrei dagozkienak, indarrean dagoen aurrekontukoen ia-ia berdinak dira.

Los **programas 100 y 310** que corresponden respectivamente a la  Secretaría del Consejo de Gobierno Foral, Asesoría y Defensa Jurídica y a Servicios Generales apenas tienen diferencias respecto al presupuesto vigente.